

## 8. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresak balorezko proposamena egin dezan, hori bera bezeroei helarazi diezaien, bezeroekiko harremanak manten ditzan eta, azkenik, diru-sarrerak sor ditzan ezinbestekoak eta **funtsezkoak** diren **baliabideak** honako hauek izango dira:

Lehenik eta behin, **baliabide fisikoen** aldetik, bilerak eta lanak egin ahal izateko, Iruneren etxean elkartuko gara enpresako kideok, bertan, gure lana aurrera eramateko beharrezko materiala baitauekagu (sukaldea, ordenagailuak, mugikorrak...)

**Baliabide intelektualen** aldetik berriz, guretzat elkarrekin izango dira garrantzitsuenak, eta horien artean bertako baserriarren jakintza hartuko dugu kontuan.

**Giza baliabideei** dagokienez, informatikaria eta nutrizionista izango dira gure proiektuan parte hartuko dutenak. Horretaz gain, taldeko kide bakoitzak bere funtzioak izango ditu:

(GOIKO ZUZENKETA BERDINAK EGIN HEMEN ERE)

- Irune Cuadrado:
  - Produktuak **publizitatu** sare sozialen bidez.
  - Beste eragileekin kontaktuan jarri hauek publizita gaitzaten.
  - Merkatuan jarriko dugun postuaz arduratu .
  - Bere etxea eskaini lanerako.
  
- Maite Iraeta
  - Garaiko produktuekin **kozinatu**.
  - Errezeta anitzak eskaini eta horietaz informatu.

- Janire Telleria:
  - Baserritarrekin eta dendekin **kontaktu jarri** .
  - Funtsezko elkarteekin eta bankuekin hitz egin.
  
- Saioa Jauregui
  - Aplikazioan aldaketak egin eta modu erakargarri batean aurkeztu.
  - Aplikazioan **informazio berria jarri**.

Amaitzeko, **finantza baliabideen** kasuan, aurrezki batzuk ditugun arren, inbertsore batzuk beharko ditugu, gure proiektua aurrera atera ahal izateko. Honetarako, lortu beharreko diru sarrerak, merkatuan ditugun aukerak arakatu ondoren, honako elkarte eta erakundeak aproposak izango direla pentsatu dugu:

- Eusko Jaurlaritza
- Udaletxea
- Gaztenpresa fundazioa (laboral)
- Tolosaldea Garatzen
- Lanbide
- Konfekoop
- Goieki

Inbertsioak eskatu aurretik, inbertsore horiek eskaintzen dituzten hainbat aspektu hartuko ditugu kontuan, horien artean: gure produktua aurrera eraman ahal izateko, ea mailegu bereziren bat duten ekintzaile izateagatik.